Iruñean, eta liskar soziopolitikoaren isla gisara, gatazka larrietarako arrazoi bilakatu dira hainbatetan protokoloari eta zeremonialari lotutako aferak, Erdi Aroaz geroztik, eta horren lekukotasuna daukagu udal-agirietan. Oihartzun handieneko liskarra 1423an gertatu zen, Nabarrieriaren, San Zernin burguaren eta San Nikolas hiriaren artean, noiz eta Karlos Nafarroako tronurako oinordekoa Katedralean aurkezteko zeremonia egin behar zutenean. Haren aitona, Karlos III.a Prestuak, azkar heldu zion gatazka historiko hura konpontzeari: aldaketa juridiko sakona egin zuen hirigune zahar haien antolamendu-egituran, eta Batasunaren Pribilegioa eman zuen irailaren 8an. Agiri hori Iruñeko forua bilakatu zen, eta, 1836ra arte, funtsa eman zion XXI. mendeko gure Iruña hau oinordeko duen orduko hiri bateratu haren udal-estatutuari.

Haatik, legeak eta egiturak aldatu ahala toki-entitatea moldatzeko beharraz gain, beharra dago Udalaren jendaurreko irudia ere egokitzeko ordezkatzeko duen gizartearen eta hartzaileen arabera –horiek gero eta ugariagoak baitira, eta, maiz, hiritik haratagokoak–. Izan ere, Iruñeak, egun, nazioarteko mailako harremanak ere baditu –Hirien Diplomazia deritzona–, dela mugaz haraindiko proiektuen bidez, dela –helburuak helburu– nazioarteko hiri-sareetan parte hartuz. Erregelamendu honek printzipio eta ikuspuntu horiek jasotzen ditu, eta testu bakar batean elkartu asmo ditu egun udal-arauetan barreiaturik dauden protokolo-alderdiak, arautu gabe daudenak eta erdizka eta lauso ezarritakoak.

Erregelamenduak sei titulu ditu, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.



- I. Titulua Iruña hiriaz ari da, haren tituluez, ikurrez, tratamenduez eta bereizgarriez.
- II. Titulua Udalbatzaz ari da, tratamenduez eta lehentasunez. Erregelamendu berria, tratamenduei dagokienez, Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurrien abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 124 y 125.2 2 artikuluetan xedatutakora egokitu da, eta lehentasunei dagokienez, abuztuaren 4ko 2099/1983 Errege Dekretuaren II. Kapituluaren 5. artikuluan 2. zenbakian eta 6. artikuluan xedatutakora, Errege Dekretu horren bidez onetsi baitzen Estatuko Lehentasunen Antolamendu Orokorra.
- III. Tituluak ekitaldi ofizialei heltzen die, haien sailkapena eta burutzak ezarrita. Bereizita gelditzen dira Iruñeko usadio eta ohituretan oinarritutako ekitaldi instituzionalak, alde batetik, eta Udalaren bestelako ekitaldiak, bestetik.
- IV. Tituluak ohoreak eta sariak arautzen ditu. Aipagarria da bertan kaleen, plazen eta monumentuen eskaintza ohore, sari edo aintzatespen huts gisara hartuta arautzen duen artikulua. Bestalde, prozedura komun bat ezartzen da tituluaren aurreikusitako ohore eta sariak emate aldera, eta xedaturik gelditzen da, baita ere, kasuan-kasuan Osoko Bilkurak zer gehiengo-mota behar duen halakoak emateko. Bereiziki aipagarria da administrazio-izaera eta -ondorioak baino izanen ez duen Ohore eta Sarien Erregistroaren sorrera.
- V. Tituluak Zeremoniala eta Etiketa ditu gai nagusi, eta bertan gelditzen da araututa Udalbatza Hiriaren Izenean ari deneko alderdiak.
- VI. Tituluak Dolu Ofiziala eta Hiletak arautzen ditu, betiere ohore eta sarietatik zein ekitaldi ofizialetatik bereizita, azken horiek ez baitituzte haien ezaugarri berak.

I. TITULUA – IRUÑA HIRIA: TITULUAK, IKURRAK, TRATAMENDUAK ETA BEREIZGARRIAK

1. artikulua. TITULUAK

Hona Iruña hiriak dituen tituluak:

- 1.- “TXIT PRESTUA”. Titulu hori, gutxienez, 1423. urteaz geroztik dauka, Nafarroako Karlos III.ak hala aitortuta, “behin eta berriro”, irailaren 8an emandako Batasunaren Pribilegioan, nahiz jaso gabe dagoen titulu hori eman zitzaion egunaren data zehatza.
- 2.- “TXIT LEIALA”. 1486ko irailaren 25az geroztik, Albreteko Joan eta Katalina errege-erreginek orduan eman baitzioten *mero et mixto imperio* izeneko pribilegioa, jurisdikzio zibila zein kriminala baliatzeko ahalmena ematen ziona.
- 3.- “TXIT HEROIKOA”. Titulu hori 1824ko abuztuaren 18an eskuratu zuen, frantsesen eskutik 1823ko irailaren 3tik 16ra pairatu zuen blokeo militarren ondotik, Gaztelako Fernando VII.a Erregearen Zedularen bidez emana, bere



“fideltasuna, irmotasuna eta sakrifizioak” saritzeko. Errege Zedula horrek berak aurreko bi tituluak ere berretsi zituen, aldi berean.

2. artikulua. IKUR OFIZIALAK

Hiria identifikatzeko ikur ofizialak Iruñeko armarría eta bandera dira.

Debeku da armarrían edo banderan erabiltzea Erregelamendu honetan deskribatutakoez bestelakoak diren ikur, sigla edo logotipoak.

1.- ARMARRIA

Udal-armarría Karlos III.a Prestuak eman zuen, eta Batasunaren Pribilegioan gelditu zen erabakita, 1423ko irailaren 8an.

1.- Deskribapena:

Iruñeko armarría puntaduna da, eta honako osagai hauek ditu: eremu urdinean, ibilian doan zilarrezko lehoi bat, mihia eta erpe gorriak dituena, goian, erdialdean urrezko errege koro bat daukalarik. Azpa gorria dauka, Nafarroako kateak dituela orla gisara, urre kolorean. Tinbre gisa, Nafarroako errege-koroa, aldaera arkaiko irekian.

Hori guztia gora behera, Iruñeko Udalak aukeratu ahalko du, irudi korporatibo eta diseinu grafikorako soluzio gisara, logotipo bat non erabili ahalko baitu Iruñeko armarrí sinplifikatua eta eguneratua, garaian garaiko gustuen arabera.

2.- Erabilerak:

Iruñeko armarríak edo haren logotipoak, banderan integratua agertzeaz gain, hauetan agertu behar du:

- Udalak emandako klase orotako diploma, ziurtagiri edo tituluetan.
- Iruñeko Udalaren erabilera ofizialeko agiri, inprimaki, zigilu eta idazpuruetan.
- Udalaren argitalpen eta iragarki ofizialetan.
- Erabilera ofizialeko toki eta objektuetan, baldin eta haietan egon behar duela zehazten bada, haien adierazgarritasuna dela medio.
- Udal-agintariek eta -langileek erabilitako bereizgarri ofizialetan.
- Udal-ibilgailuetan.
- Beste hainbat kasutan, hala izatea xedatzen bada.



Armarria erabiltzeko edo hedatzeko, erreproduzio-bidea edozein delarik ere, aurretiko baimena beharko da, interesdunek eskaera arrazoitua eginda, aurrez.

2.- BANDERA

Iruñeko banderaren jatorria Karlos III.a Nobleak Batasunaren Pribilegioan hiriari emandako zutoihala da.

Banderaren egungo kolorea Udaleko Osoko Bilkurak erabaki zuen 1930eko ekainaren 5ean.

1.- Deskribapena:

Iruñeko banderan, erdian, arestian aipatutako armarria agertzen da, oihal berde baten gainean jarrita. Proportzioak bi herenekoa izan behar du.

2.- Bandera honako hauetan agertu behar da:

- Udaletxearen fatxadan eta beste udal-erakinen fatxadetan –hala xedatzen bada–.
- Udalbatza-aretoan eta alkatearen bulegoan.
- Zer ekitaldi edo tokitan egoki jo eta horietan.

3.- Erabilerak:

Bandera erabiltzeko, Udalak eman behar du baimena.

3. artikulua. TRATAMENDUA

Udalari dagokion tratamendua Txit Gorena da.

4. artikulua. BEREIZGARRIAK

1.- HIRIKO ZUTOIHALA

Zenbait ekitaldi ospetsutan erabiltzen den bandera da.

1.- Deskribapena:

Oihal berdean egina da, eta erdian hiriko armarria darama, urrez eta zilarrez brodatuta. Zintzilik, bi lokarri ditu, urre kolorekoak eta elkarri lotuak, bukaeran kolore bereko bi borla dituztenak.



2.- Erabilerak:

- Udalbatzak aurrean darama Hiriaren Izenean desfilatzen duenetan, salbu Bost Zaurien Funtzioan, non, San Agustin elizaren barnealdean, Udalbatzak, aurrean, bandera beltz bat baitarama, Bost Zuriaren ikurrarekin eta, orla gisara, arantzazko koroarekin.
- Zutoihala beste zenbait ekitalditan erabiliko da, baldin eta, haien garrantzia dela medio, hala erabakitzen bada.

2.- TAPIZAK

Oihal angeluzuzen brodatuak dira, eta egun berezietan erakusten dira Udaletxearen fatxadan. Haietan ikusgai daude Iruñeko armarrria, Bost Zaurien ikurra eta hiriko burgu zaharretako armarrriak. Udalak 1614. urtean erabaki zuen haiek egitea.

1.- Deskribapena:

Oihal berde ilunean eginak izan behar dute, eta erdian aipatu berri diren ikurra edo armarrriak eraman behar dituzte.

2.- Erabilerak:

Udaletxearen balkoietan jarri behar dira honako festa eta oroipen-egun hauetan:

- Bost Zaurien Botoa (Ostegun Santua)
- Sanferminak (uztailaren 6tik 14ra, bi egun horiek barne).
- Batasunaren Pribilegioa (irailaren 8a)
- San Zernin (azaroaren 29a)
- Haien garrantzia dela medio apaindura handiagoa behar duten ekitaldiak.

3.- IRUÑEKO UDALAREN MAZOAK

Hiriko hiru mazoek udal-boterea adierazten dute. XVI. mendekoak dira. Solemnitate handieneko ekitaldi ofizialetan erabiltzen dira, Udalbatzaren aurrean doaz eta haren eramaileek bizkar gainean daramatzate.

1.- Deskribapena:

Hiriko hiru mazoak zilarrezkoak dira, eta buru hexagonalekoak; buruetako aldeetan, zizelkaturik, hiriko armarrria eta Bost Zaurien ikurra doaz txandakatuta. Erdiko mazoak, handiagoak, kirtena kontserbatu du, 1555. urtekoa.



2.- Erabilerak:

- Udalbatzak Hiriaren Izenean egiten dituen segizioetan eramaten dituzte.
- Lehentasunezko kokalekua dute alkatearen bulego ofizialean.
- Erabiltzekoak dira, baita ere, zenbait ekitalditan, haien garrantzia dela medio hala erabakiz gero.

II. TITULUA – UDALBATZA. TRATAMENDUAK ETA LEHENTASUNAK

5. artikulua. TRATAMENDUAK

Udalbatzak utzi egiten dio indarreko legeetan jasotako tratamenduak erabiltzeari.

6. artikulua. LEHENTASUNAK

1.- Hona Udalbatzaren lehentasun-ordena:

Lehenik: Alkatea.

Bigarren: Alkateordeak, beraien ordenaren arabera.

Hirugarren: Udal-talde politikoek bozeramaileak, Udalean dituzten zinegotzi-kopuru handienetik txikienera. Baldin eta bi alderdik zinegotzi-kopuru bera badute, ordena jartzeko, hautagaitzek lortutako boto-kopuruari begiratuko zaio.

Laugarren: Tokiko Gobernu Batzarreko zinegotziak, udal-taldeak eta zinegotzi-kopuru handienetik txikienera, eta, behar izatera, udal-hauteskundeetan lortutako boto-kopuruaren arabera. Baldin eta organo hori udal-talde bateko kideek baino ez badute osatzen, hautagaitzan ezarritako ordenan joanen dira.

Bosgarren: Gainerako udal-taldeetako zinegotziak, Udalean duten ordezkartzaren arabera antolatuak, handienetik txikienera, eta hautagaitzan ezarritako ordenan.

2.- Udal-ekitaldi batzuetan, hala behar izatera, honako hauek joanen dira Udalbatzaren atzean:

- Alkate ohiak (kargu-antzinatasunaren arabera).
- Urrezko Dominadunak (noiz jaso eta ordena horretan).



- Idazkari nagusia.
- Udal-alorretako eta administrazio-unitateetako zuzendariak.

3.- Udalbatzak Hiriaren Izenean jarduten duenean, hau da ordena, martxaren norabidean:

Lehenik: Banderaduna. Hiriko Zutoihala zinegotzirik gazteenak eraman behar du.

San Fermin prozesioaren ondoren, uztailaren 7an, alkateak bandera eraman ahalko du Katedraletik Udaletxeraino, Udalbatzaren segizioari buru emanez.

Bigarren: Hiriko Zutoihalaren borlen eramaileak Udalbatzako kide gazteenetan bigarrenak eraman behar du zutoihalaren eskuinaldeko borla, eta gazteenetan hirugarrenak, ezkerraldekoa.

Hirugarren: Zinegotziak. Talde politikoen arabeko ordenan desfilaratu behar dute, ordezkari-kopuru handienetik txikienera eta hautagaitzako ordenako hurrenkeran, ezkerraldeetik eskuinaldera eta aurrealdetik atzealdera ordenatuta.

Laugarren: Alkateordeak Alkatearen albo banatan joan behar dute, lehen alkateordeak haren eskuinean, eta bigarrenak, ezkerrean. Alkateorde gehiago izanez gero, beraien ordenan joanen dira, eskuinean eta ezkerrean paratuta.

Bosgarren: Alkatea.

III. TITULUA – EKITALDI OFIZIALAK: SAILKAPENA ETA BURUTZA

Halakoak dira Iruñeko Udalak antolatzen dituenak, haietan Udalbatzak parte hartu behar duela irizten zaion kasuetan. Udalkideek ekitaldi horietara joateko erantzukizuna dute.

Ekitaldi ofizialetan, Udalbatzak Erregelamendu honetan finkatutako lehentasun-ordenari eutsiko dio.

7. artikulua. KARGU-HARTZEAK

Udalbatzako kideen zein lehendakariaren kargu-hartzeak indarreko legeetan ezarritakoarekin bat egingen dira.

Ekitaldi solemnea da. Hartan, Udalbatzako kideak desfilean doaz, binaka, Udalbatza-aretoraino, ordena alfabetikoan eta Adin-mahaiko kideek buru emanda segizioari. Ibilbidean, mazolariak, galako udaltzainak eta turuta-jotzaileak eta tinbalariak hartzen dute parte. Alkate izatera doanak erabaki ahalko du Hiriaren Izenean aritzen diren



taldeetako baten batek parte hartzea, salbu Erraldoien eta Buruhandien Konpartsak eta Udalaren Musika Bandak.

Agintaldian zehar Udalbatzako kiderik ordeztu behar bada, ahaleginak egingen dira kide berriaren kargu-hartzeak ahalik eta duintasun handiena izateko.

8. artikulua. EKITALDI INSTITUZIONALAK

Ekitaldi horietan Udalbatzak Udalbatza gisa edo Hiriaren Izenean parte hartzen du. Hona hauek dira:

- Bost Zaurien Funtzioa (Ostegun Santua)
- San Fermin bezperetarako martxa (uztailak 6)
- San Fermin prozesioa (uztailak 7)
- San Fermin Zortziurrena (uztailak 14)
- Batasunaren Pribilegioaren segizioa (irailak 8)
- San Zernin prozesioa (azaroak 29)
- Beste batzuk, hala erabakitzen badu Udaleko Osoko Bilkurak.

9. artikulua. HIRIEN ARTEKO SENIDETZEAK

1.- Senidetzeak.

Iruñeak beste udalerrri eta herri batzuekin dituen loturak dira, eta xede dute bi aldeetako herritarrek zein erakundeek harremanak elkarrekin estutu –kulturaren, ekonomiaren, gizartearen edota kirolaren arloetan– eta proiektuak sustatzea –herritar guztien onurarako–.

Iruña hiri hauekin dago senidetuta:

- Baionarekin (Frantzia), 1960ko ekainaren 19tik
- Yamaguchirekin (Japonia), 1980ko otsailaren 19tik
- Paderbornekin (Alemania), 1992ko abenduaren 6tik
- Pamplonarekin (Kolonbia), 2001eko maiatzaren 29tik.



1.- Senidetzeko prozedura

Ezarrita dago IV. Tituluan, 16. artikuluan.

Espedientearen instrukzioan, txosten bat eginen da, bi hirien artean dauden loturak eta senidetzearen helburuak jasota. Proposamena Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, senidetza onesteko erabakia har dezan, horretarako Udalbatza legez zenbat kidek osatu eta horien bi herenen gehiengoa beharko delarik.

Senidetza ekitaldi solemne batean izenpetuko da.

Senidetza baliogabetzeko, prozedura berari ekinen zaio.

2.- Lehentasunak

Baldin eta ekitaldi batean zenbait hiri senidetuaren ordezkariak bat egiten badute, lehentasunak ezartzeko irizpidea senidetzearen antzinatea izanen da.

10. artikulua. BESTELAKO EKITALDIAK

Iruñeko Udalak antolatutako beste zenbait ekitaldi dira, hala nola harrerak, sari-banaketak, inaugurazioak, oroipen-ospakizunak eta abar.

IV. TITULUA – OHOREAK ETA SARIAK

Titulu honetan, Iruñeko Udalak ematen dituen ohoreak eta sariak arautu, eta haiek emateko baldintzak zein prozedura, organo eskuduna eta behar diren gehiengoak ezartzen dira.

11. artikulua. XEDAPEN OROKORRAK

Ohoreak eta sariak ematearen xedea da aintzat hartzea Iruñearen alde egindako merezimendu, zerbitzu edota ekarpen bereziak, kulturaren, zientzietan, arteetan, ekonomian, kirolan, arlo sozialean eta beste zenbait eremutan.

Ohoreak eta sariak aintzatespen hutsak dira, eta ez dakarte berekin ez administrazio-titulurik, ez diru-ematerik. Saritua bizirik dagoela zein hil eta gero eman ahalko dira.

Hona hemen, zerrendaturik:

1.- Iruñearen Urrezko Domina

2.- Hiriko Seme edo Alaba Kutunaren titulua eta Adopziozko Seme edo Alabarena



3.- Pañuelo de Pamplona – Iruñeko Zapia

4.- Kaleen, plazen eta monumentuen eskaintza

5.- Beste batzuk, hala erabakitzen badu Udaleko Osoko Bilkurak.

Dominak, ohoreak eta sariak ezin zaizkie eman Udalbatzako kideei, ez zuzendaritza-kargudunei, karguetan egon bitartean.

12. artikulua. HIRIAREN URREZKO DOMINA

1.- Xedea:

Iruñeko Udalak ematen dituen sarietan gorena da.

Haren xedea da pertsonak –fisikoak zein juridikoak, nazionalak ala atzerritarak– aintzatetsi eta saritzea, baldin eta hiriaren izen onaren alde egin badute edo gailendu badira, dela haien meritu apartak direla medio, dela Iruñeari egindako zerbitzuengatik.

2.- Deskribapena:

Domina urrezkoa da. Aurkian, hiriaren armarría darama, eta hitz hauek: “M.N M.L M.H CIUDAD DE PAMPLONA/IRUÑA HIRI TXIT PRESTU, LEIAL ETA HEROIKOA”; eta ifrentzuan, Iruñeko antzinako burguen armarría, eta beste hitz hauek: “UNIÓN DE LOS BURGOS POR CARLOS III EL NOBLE MCDXXIII BURGÜEN BATASUNA KARLOS III.a PRESTUAK EMANA”.

3.- Emateko eta entregatzeko era:

Urrezko Domina Osoko Bilkurak erabakia hartuta ematen da, eta zinegotzien bi herenen gehiengo behar du.

Urtean bat eman daiteke.

Urrezko Domina ekitaldi solemne batean entregatuko da.

13. artikulua. HIRIKO SEME EDO ALABA KUTUNAREN TITULUA ETA ADOPZIOZKO SEME EDO ALABARENA

1.- Xedea:

Hiriko Seme edo Alaba Kutunaren Tituluaren xedea da saritzea Iruñean jaio eta gailendu diren pertsonak –dela haien beraien meritu edo dohainengatik, dela hiriari egindako zerbitzuak medio–.



Hiriko Adopziozko Seme edo Alabaren Tituluaren xedea da saritzea Iruñean jaio gabe ere gailendu diren pertsonak –dela haien beraien meritu edo dohainengatik, dela hiriari egindako zerbitzuak direla medio.

2.- Deskribapena:

Diploma bat da, sariaren aipamenarekin.

3.- Emateko eta entregatzeko era:

Hiriko Seme edo Alaba Kutunaren Titulua eta Adopziozko Seme edo Alabarena Osoko Bilkurak erabakia hartuta ematen dira, eta, gutxienez, Udalbatzako legezko kideen bi herenek bozkatu behar dute haien alde.

Hiriko Seme edo Alaba Kutunaren Titulua eta Adopziozko Seme edo Alabarena ekitaldi solemne batean entregatuko dira.

14. artikulua. PAÑUELO DE PAMPLONA – IRUÑEKO ZAPIA

1.- Xedea:

PAÑUELO DE PAMPLONA – IRUÑEKO ZAPIA ohorezko sariak xedetzat dauka pertsonak –fisikoak zein juridikoak– eta erakundeak saritzea, baldin eta haien eguneroko zereginetan edo jardunbide profesionalean modu aktibo eta agerikoan aritu badira Iruñearen ezaugarriak –haren historia eta kultura– zabaltzen eta finkatzen, edo gailendu badira aparteko ekarpen bat egin dutelako arteen edo zientzien esparruan.

2.- Deskribapena:

Saria bi osagai izanen ditu: zapi gorria, zeinak mutur batean hiriaren armarrria izanen baitu, brodaturik, eta eskultura bat, Burguen Batasunaren alegoriarena.

3.- Emateko eta entregatzeko era:

Urtero emanen da, eta Osoko Bilkurak hartuko du erabakia, hala egokituz gero Iruñeko Kultura Kontseiluak proposatuta, eta alkateak entregatuko dio, jendaurreko ekitaldi batean, saritutako pertsonari, Iruñean Batasunaren Pribilegioa ospatzen den egunean.

Sari hori emateko, espediente bat osatu behar da, eta bertan egiaztaturik utzi sari-ematea justifikatzen duten merezimenduak.

Horretarako, alkateak espedientea hasteko agindua emanen du, eta Kulturako Alorrak bideratu eta tramitatuko du espediente hori, non epe bat xedatuko baita –gutxienez bi hilabetekoa–, hautagaitzak aurkezteko. Hautagaitzak honako hauek aurkeztu ahalko dituzte, betiere arrazoiak emanda eta haiek bermatzen dituzten funtsak jasota:



hautagaiek beraiek, Udalbatzako kideen heren batek, 10 erakundek edo 500 eskatzaile partikularrek.

15. artikulua. KALEEN, PLAZEN ETA MONUMENTUEN ESKAINTZA

1.- Xedea:

Kaleei, plazei, parkeei, pasealekuei, eraikinei, monumentuei edo beste gune publiko batzuei izenak ematea aukera egokia da aintzatesteko horretarako behar beste meritu dituzten pertsonak zein erakundeak, dela Iruñearen alde egindako zerbitzu edo jarduera bereziak direla medio, dela gailenduak direlako, zientzietan, kulturaren, kirolan edo beste zenbait arlotan.

2.- Emateko era:

Alkatearen eskumen eskusiboa da. Espedientearen berri emanen zaio Bozeramaileen Batzordeari, izena emateko ebazpena eman aurretik.

16. artikulua. SARIAK EMATEKO ETA BALIOGABETZEKO PROZEDURA

Erregelamendu honetan jasota dauden sariak emateko, nahitaezkoa izanen da kasuan kasuko administrazio-espedientea tramitatzea aldeztu aurretik, eta bertan zehaztea saria emateko justifikazio diren arrazoiak, merituak edota inguruabarrak.

Prozedura Alkateak eman beharreko Dekretuak abiaraziko du, dela beraren ekimenez, dela Udalbatzako kideen heren batek edo zenbait erakundek edo partikularrek eskatuta – betiere Iruñean erroldatuta dauden mila pertsonen sinadurak behar direlarik–. Eskatzaileek, eskaerarekin batera, kasuan kasuko saria ematea justifikatzeko memoria aurkeztu beharko dute. Alkate Dekretuak izendatuko du, funtzionarioen artean, instrukzioa egin eta espedientea tramitatuko duen pertsona.

Pañuelo de Pamplona – Iruñeko Zapiaren kasuan, Kulturako Alorrak edukiko du espedientea bideratzeko eskumena.

Baldin eta proposamena Udaleko funtzionario bati badagokio, aplikatzekoak izanen dira, Erregelamendu honetan ezarritako arauekin batera, Toki Administrazioako funtzionarioei buruzko indarreko legeak.

Kasuan kasuko espedientea jendaurrean paratuko da 20 egunean, instrukzio-egileak proposamena egin aurretik, eta zinegotziei zein proposamenean interesa duten pertsona eta erakundeei jakinaraziko zaie. Entzunaldia irekitzeko, ediktu bat argitaratu beharko da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, iragarki-taulan eta udal-webgunean bederik, ezertan galarazi gabe beste bide batzuen bidez ere helaraztea.

Zer eginbide adostu eta behin horiek guztiak eginda –zeinek, nolahi ere, hiru hilabete baino gehiago ez dute iraun beharko, Alkateak Dekretua ematen duen egunetik–,



instrukzio-egileak proposamen arrazoitu bat –baiestekoa ala ezestekoa– aurkeztuko dio Udalbatzari.

Espedientea, kasuan kasuko informazio-batzordeak irizpena eman eta gero, Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio ezagut eta onets dezan –eskumena berea bada–. Bestela, alkateak erabaki beharko du. Kasuan-kasuan, horretarako bakarrik deitutako ezohiko bilkuran hartuko da saria emateko erabakia. Sariak emateko erabakiak hartzeko, gehiengo arautuak behar dira, Erregelamendu honetan sari bakoitzerako ezarritakoak.

Gutxienik ere, sariak emateko erabakiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean, iragarkitaulan eta Udalaren webgunean argitaratuko dira.

Baldin eta saria emateko proposamena pertsona, erakunde edo instituzio batek egina bada, hura ukatzeko erabakiak arrazoitua izan beharko du, eta bertan, kasuan-kasuan, aurkez daitezkeen errekurtsoen berri eman beharko da.

Sariak baliogabetzea:

Udalak –sariak emateko galdatutako baldintza berberekin– Erregelamendu honen xede diren sariez gabetu ahalko ditu hutsik egiten dutenak, portaera desegokiak hartzen dituztenak edota emandako ohorearen, sariaren edo tituluaren izen ona galarazten dutenak.

17. artikulua. OHORE ETA SARIEN UDAL ERREGISTROA

Iruñeko Udalaren Ohore eta Sarien Erregistroa eratzen da, administrazio-izaera eta -ondorioekin, non inskribatuko baitira ohoreak eta sariak emateko eta baliogabetzeko erabakiak. Prozedura ofiziozkoa izanen da.

Erregistroak hainbat atal izanen ditu, Erregelamendu honek ohorezko zenbat sari arautu eta horrenbeste. Atal bakoitzean erregistratuko dira, ohoreak eta sariak noiz eman eta ordena kronologiko horren arabera, saridunen izenak eta inguruabar pertsonalak, saria edo ohorea emateko arrazoi izan ziren merituen zerrenda, saria edo ohorea noiz eman zen, eta, kasua halakoa bada, saridunen heriotza-data.

Erregistroa publikoa izanen da eta Idazkaritza Nagusiari atxikiko zaio.

18. artikulua. OHOREZKO LIBURUA

1.- Xedea:

Iruñeko Udalaren Ohorezko Liburuan jasotzen dira Udaletxea bisitatzeko duten pertsona ospetsuen sinadurak, bai eta hiriaren ohorezko sari bat jaso dutenenak ere.

Alkateak proposatuko du, Bozeramaileen Batzordeari entzun eta gero, Liburuan nork sinatuko duen hirira bisitari datozen pertsona ospetsuenen artetik.



Ohorezko Liburua Protokolo Zerbitzuak zainduko du.

19. artikulua. UDAL-OPARIAK

1.- Xedea:

Udal-opariak opari adeitsu hutsak dira, eta Protokolo Zerbitzuak zehaztu eta diseinatzen ditu. Zuzeneko lotura eduki behar dute Iruñeko tradizio eta usadioekin, historiarekin edo hiriaren ezaugarri diren kultur alderdiekin.

Halakoak emateko, ez da behar ezein prozedurarik.

V. TITULUA – ZEREMONIALA ETA ETIKETA

20. artikulua. HIRIAREN IZENEAN

Iruñeko Udalbatza Hiriaren Izenean doa ekitaldi instituzionaletan parte hartzera, eta hara aritzen denean Udalbatzak etiketa jakin bati heltzen dio, eta segizio baten parte delarik jarduten du, non, nolana ere, parte hartu behar baitute turuta-jotzaileek eta tinbalariek, banderadunak eta borla-eramaileek, mazolariek eta galako udaltzainek, haien aurretik doazelarik erraldoi eta buruhandien konpartsa, udal-dantzariak, udal-txistulariak eta Udalaren musika-banda.

Batzuetan, ospakizuna zein den, ez dute parte hartuko erraldoi eta buruhandien konpartsak, udal-dantzariak, udal-txistulariek eta Udalaren musika-bandak.

21. artikulua. BEREIZGARRIAK ETA ETIKETA

2. BEREIZGARRIAK

d) Alkatea:

- 1.- Aginte-makila.
- 2.- Urre-koloreko lepokoa, Iruñearen dominarekin.
- 3.- Papar-hegaleko intsignia, urre-kolorekoa.

e) Alkateordeak:

- 1.- Aginte-makila.
- 2.- Domina esmalteztatua, kordoi berdearekin.



3.- Papar-hegaleko intsignia.

4.- Katea, gizonen kasuan.

f) Zinegotziak:

1.- Domina, kordoi berdearekin.

2.- Papar-hegaleko intsignia.

3.- Katea, gizonen kasuan (txalekoaren gainetik zeharkatuta, eskuineko bizkarretik).

1.1.- Deskribapena:

1.- Alkatearen aginte-makilak urre-koloreko heldulekua dauka, Iruñeko armarria daramana.

2.- Alkateordeen aginte-makilek brontze-koloreko heldulekuak dauzkate, eta zenbakiturik daude, alkateordetzen ordenaren arabera.

3.- Papar-hegaleko intsignia, Iruñeko armarriarekin.

4.- Dominak, aurkian, hiriaren armarria darama, eta ifrentzuan, Bost Zaurien ikurra.

Alkatearen eta alkateordeen aginte-makilak, dominak, urre-koloreko lepokoa eta kateak Udalarenak dira eta Udalak zaintzen ditu.

1.2.- Erabilera:

Udalbatzako kideek honako ekitaldi hauetan erabiliko dituzte:

1.- Alkateak lepokoa eta aginte-makila erabiliko ditu kargua hartzen duen egunean, karguaren zina edo promesa egin ondoren. Eta haien solemnitatea dela bide halakorik eskatzen duten ekitaldietan.

2.- Udalbatza Hiriaren Izenean aritzen den zeremonietan.

3.- Bost Zaurien Botoa berritzeko egunean, Udalbatzak domina eramanen du, baina ifrentzua erakutsita.

4.- Intsigniak, behin jartzen dizkietenean, zinegotzienak bilakatzen dira, eta zinegotziek era partikularrean erabil ditzakete.



2.- ETIKETA

2.1.- Gala-jantzia

Udalbatzako kideek zeremonia-jantzia erabili izanari buruzko lehen aipua 1441. urtekoa da. Halako jantzien diseinua aldatzen joan da menderik mende. Egun Udalbatzak janzten dituen gala-jantziak 1998ko otsailaren 27an onetsi zituen Osoko Bilkurak.

1.- Deskribapena:

1.1.- Emakumeak

Emakumeen jantziaren diseinuak Nafarroako Pirinioetako Aezkoa, Erronkari eta Zaraitzu ibarretako jantzi tradizionala dauka inspirazio-iturri, eta 1979an hasi zen erabiltzen, lehen emakumeak Udalbatzako kide egitearekin batera.

Emakumeen jantzia honelakoa da: mauka luzeko blusa zuri estua, gona beltz tolesduna, jaka beltz estu brodatua, eta xal beltz brodatua.

1.2- Gizonak

Gizonen jantzia honelakoa da: hiru piezako fraka, alkandora zuria, kapela luzea tximeleta-begizta zuria, tiranteak eta eskularru zuriak.

Bi kasuetan, Udalak zehaztuko du oinetakoen mota.

Emakumeen kasuan, xal beltz brodatua Udalarena da, eta zinegotzi izateari uztean itzuli behar dute.

2.- Erabilera:

Hiriaren Izenean ari direnean, zinegotziek gala-jantzia erabili behar dute. Jantzi hori kargua dela medio egon beharreko beste ekitaldi batzuetan erabili ahalko dituzte.

Ezin izanen dute jantzi eraldatu, ezta hari deskribapenean agertzen ez den beste ezein osagairik erantsi ere.

Jantziak neurritan eginen dira, eta Udalbatzako kideek zaindu behar dituzte, zeinek berea.

2.2.- Segizioko beste jantzi batzuk

Segizioko beste kideen jantziak janzkera historikoetan edo bertako tradizioetan inspiratuta diseinatu ziren.

Jantzi horiek Udalaren ekitaldietan baino ez dira erabiliko, eta beste erakundeekin hitzartutakoetan.



Turuta-jotzaileen, tinbalarien, mazolarien, libreadunen, gala-udaltzainen eta txistularien jantzien zaintza eta mantentze-lanak Udalak egitekoak dira.

Dantzarien eta Udalaren musika-bandaren kasuan, zaintza eta mantentze-lanak taldeei beraiei dagozkie.

VI. TITULUA – DOLU OFIZIALA ETA HILETAK

22. artikulua. DOLU OFIZIALA

Alkateak dolu ofiziala aldarrikatu ahalko du, hala eskatzen badute zirkunstantziak edo udalerrian muntadunak diren gertaerek.

Alkatearen Dekretuan aipatuko dira begirunea edo dolumina erakusteko gauzatuko diren ekintzak, zeinak honako hauek izan ahalko baitira:

- Bertan behera uztea Udalak antolatutako ekitaldi guztiak edo haietako batzuk, dolu ofizialak iraun bitartean.
- Haga erdian jartzea udal-eraikinen kanpoaldean jarrita dauden Iruñeko banderak.
- Dolu-xingola beltz bat jartzea udal-egoitzen barnealdean jarrita dauden Iruñeko banderetan.
- Beste edozein ekintza, dolu ofizialaren aldarrikapena erakusteko eta helarazteko egoki jotzen badira.

Dolu-aldarrikapena Udalaz gaindiko beste erakunde edo administrazio publikoak egina bada, men eginen zaie kasuan kasuko aldarrikapenei.

23. artikulua. HERIOTZAK

1.- Udalbatzako kide baten heriotza.

Udalbatzako kide bat hiltzen bada, alkateak edo haren ordeztari denak hildakoaren familiarekin adostuko ditu hil-kaperari, ehorzketari edota hiletari dagozkien alderdiak, betiere familiak adierazitako nahiei men eginik eta ekitaldiei solemnitatea ematen saiatuta.

Hil-kapera, familiak hala nahi badu, Udaletxean ezarri ahalko da.

2.- Alkate ohien, zinegotzi ohien edo udal-sariak bereganatu dituzten pertsonen heriotza.

Udalbatzako kide izandakoak hilez gero, edo Erregelamendu honetan jasota dauden sarietako bat duten pertsonak, egoki jotzen diren ekintzei helduko zaie.



XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honek indarrik gabe uzten ditu maila bereko edo maila apalagoko arauak oro, baldin eta Erregelamendu honetan xedatutakoari kontra egiten badiote.

AZKEN XEDAPENA

Behin Erregelamendua onetsita, indarra hartuko du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.